

2011 urtean elkarte eta irabazi asmorik gabeko pertsonentzat kirol jarduerak eta programak antolatzeko diru-laguntza eskatzeko deialdia.

1. Xedea

Deialdiaren xedea kirol arloan urtean burututako egitarauak edo jarduerak garatu eta burutzeak dakartzan gastuetan atzipen eta emakiden diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea da. Diru-laguntza hauen xede dira hala ohiko jarduerak nola jarduera bereziak.

2. Aurrekontua

Kultura Sailak 41.500 euroko aurrekontua du, hauetatik 40.000 euro urteko egitarauak antolatzeko eta 1.500 euro proiektu eta jardura zehatzetarako direlarik.

3. Onuradunak

Muskizen finkatuta dauden elkarte eta irabazi asmorik gabeko pertsonak dira diru-laguntza hauen onuradun, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratuak egon eta dagokion erregistroan izkribatuak egonik, Muskiztarrentzat interesgarriak diren jarduerak antolatzeko asmoa badute.

4. Bazterketak

Ondorengo hauek dira diru-laguntza deialdi honetatik kanpo geratuko direnak:

- a) Deialdia egiten duen Sailarekin zerikusirik edo loturarik ez dutenak.
- b) Beste Erakunde Autonomo edo Udaleko beste Sail batzuen programetan egon beharko liratekeenak. Kasu honetan dagokion sailera edo erakundera bidaliko da eskabidea, interesatua jakinaren gainean jarriko delarik.
- c) Laguntza izenduna xede duten programak eta sail honen barruan beste deialdi batzuetan egokiago leudekeenak

5. Aurkeztu beharreko agiriak

Diru-laguntza hauek jaso nahi dituztenek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

1. Deialdi honi erantsita dagoen eskabide orria, behar bezala beteta, bertan honakoak zehaztuz:
 - Diru-laguntza eskatzen den proiektuaren deskribapena
 - Eskatzailearen ibilbidea azaltzen duen txostena: pardaideak, helburuak, egindako jarduerak,...
 - Gastuen aurrekontua:
 - Hirugarrenari ordaindutako gastuak (zerbitzuak, laguntzaileak).
 - Materiala eskuratzea
 - Sustapena (kartelak, programak, iragarkiak...)
 - Bestelakoak (ez dira onartuko inolako menuen gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartu duten eta erakundeaz kanpokoak diren lagunei eskeini zaizkienak izan ezik)
 - Diru-sarreraren aurrekontua
 - Erakunde eskatzaileak sortutako diru-sarrerak: salmentak, txoznak, zozketak, kuotak...
 - Beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako diru-Laguntzak
 - Beste batzuk
2. Eskatzaileak Ogasunarekin eta Gizarte-Segurantzarekin zerga-betekizunak kitatuta dituelako ziurtagiria. (Erantsita dagoen ereduari jarraituz, eskatzaileak sinatutako aitortza onartzen da)
3. Dirua sartuko den banku-kontuaren fotokopia. Eskatzailea agertu beharko da kontuaren jabe.
4. (Lehenengo aldiz eskatzaen duten elkarteak baizik) Zerga-Identifikazio Kodea, Estatutuen kopia eta eraketa-akta

Deialdiaren oinarrietan agertzen diren baldintzak beteko ez balira edota aurkeztu beharreko dokumentazioa osorik ez balego, hamar eguneko epea egongo da dokumentazio osoa aurkezteko edota okerrak zuzentzeko. Epe horretan baldintza guztiak beteko ez balira edota dokumentazioa aurkeztuko ez balitz, eskaera deuseztatua izango litzateke. Nolanahi ere, ekintzei buruzko dokumentazioaz gain, aurkeztutako ekintzen inguruko informazio osagarria eskatu ahalko du Udalak, eskaeraren balorazioa egin ahal izateko.

6. Epeak

a) Urteko egitarauak: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratzen den egunetik hasita, egutegiko 20 eguneko epea.

b) Ekintza zehatzak: azaroaren 1a baino lehenago.

7. Balorazioa eta emakidaren irizpideak

Diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emango dira.

Pertsona edo elkarte eskatzaileek 100 punturainoko puntuaketa izan beharko dute, honako irizpideen arabera:

- Lizentzia arrunten kopurua (30 punturaino)
- Aurrekontua (45 punturaino)
- Aurten zehazki ospatuko diren ekintza bereziak aurkeztutako egitarauan sartzea: urteurrenak, biltzarrak, edo antzekoak (10 punturaino)
- Muskizko Udaleko Kultura Sailak bereziki lagundu nahi dituen ekintzak eta programak, aparteko interesa izateagatik (10 punturaino)
- Partaidetza eremua (lurralde-eremua, autonomikoa, e.a.) (5 punturaino)

10 puntu baino gutxiago lortzen duten eskaerak baztertu egingo dira. Diru-laguntza deialdi honetarako zehaztutako aurrekontua onartutako eskaera guztien artean banatuko da, bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, ondorengo salbuespenak kontuan hartuz:

1.- Proiektu eta jarduera zehazterako diru-laguntza zenbatekoa ezin izango da eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuaren %75ekoa baino handiagoa izan. 2.- Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da Kultura Sailak deialdi horretarako ezarritako kopuruaren %20 baino handiagoa izan. (Kasu bietan behar bezala justifikaturiko salbuespenak egon daitezke. Beti ere Kultura Sailak baloratu egingo du)

8. Ebazpenaren jakinaraztea

Behin eskaeren ebazpena eginda, dagokion sailak eskatzaile guztiei idatziz jakinaraziko die emango dien diru-kopurura banduan sartuko dielarik ondoren.

9. Diru-laguntzen justifikazioa eta itzulketak

Ekintzak, burutu ondorengo 2 hilebeteetan justifikatu beharko dira. Urteko egitarauetarako diruz lagundutako egitarauaren ondorengo urteko urtarrilaren 31 izango da azken eguna. Aurretik epe barruan justifikatu gabeko diru-laguntzak dituztenak ez dira diruz lagunduko.

Diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izan beharko da:

- 1-Gastuen zerrenda, eskabidean agertzen den gidoiari jarraituz aurkeztua.
- 2- Aipatu gastuen fakturak.
- 3- Diruz lagunduko den programa edo ekintzaren txostena.
- 4- Ateratako kartel, eskuorri edo egindako edozein publizitate mota, Udalaren babesa agertzen delarik.

Muskizko Udalak diruz lagundutako elkarte zein pertsoneri behar bezala justifikatu ez duten kopurua eskatuko die.